

“AZKENENGO URTEETAN GUTXITZEA IZAN DA; PENAZ HANDIZ”

Kaixo ni Andrea naiz! Nire amari galderak egin dizkiot, Zumaia nola egongo den 2050. urtean.

Jende asko joango al da Zumaitik atzerrira?

Nik uste dut uain arteko joera mantenduko dela. Egia da, Zumaia herriak baduela industri gune bat eta inguruak ere baduela ekonomia maila mantentzeko gune bat. Orduan, ez dut uste joango denik jende asko, joango da jendea beti bezela baina asko ez dut uste.

Zumaian gaur egun baino biztanle gutxiago egongo ahal dira?

Ez, arrazoi berdinengaitik ez baldin bada jende asko joaten esango nuke mantentze joera edukiko duela nahiz eta azkenengo urteetan jaiotze tasa jaitsi; baina mantentzeko joera egongo dela esango nuke urte batzuk barru.

Soldatak handiagotu edo txikiagotu egingo ahal dira?

Oso gutxi igoko direla uste dut, nahiz eta beste guztiaren kostua askoz gehiago garestitu baina ez doaz proportzioan. Garestitze hori energiatik hasi eta janarietara, baina iruditzen zait soldatak ez direla igoko.

Zenbat jendek egingo du lan etxetik? Nik ez dut uste askoz gehiago areagotuko denik etxetik egiteko lan, a azkenean presentzialak beste indar bat du esango nuke nik nere esperientziatik behintzat, nahiz eta pandemiak horretara eraman, baina azkenean gehiengo berriz ere berdinerira iritsi da.

-Energia printzipalen prezioa nola aldatuko da?

Ba ez dakit, gobernuak uste dut hor lan handi bat egin beharko lukena eta aldi berean horretaz ere aprobetxatzen da; orduan, ez dakit energia renobableekin horiek indartuko beharko liraken eta guk geuk ere erabilpen gutxiago bat eduki baina ez dut oso argi nola den formula.

Jendea geratuko ahal da argindarrrik gabe?

Ba gaur egun gelditzen da, eta garestitze honekin are gehiago bai uste dut gobernuak ba daukala hori gerta ez dadin euki beharko lituzkeen laguntzak ba daukala bai dakit baina ez ditu betetzen, ez dut uste guztiak betetzen dituztenik baina nik uste asko gelditzen dela gaur egun argi indarrrik gabe eta geldiko dela.

Zumaiaiko zein eremu ureztatuko dira?

Klima aldaketa dela eta nik esango nuke zentimetro batzuk bai igoko dela gure giza bizitzarengaitik eta ohiturengaitik, baina nik uste igoko dela ba itsaso ondoko zatia arranpla aldetik hasi eta paol alde tartean.

Zer egin dezakegu herriaren garbitasuna zaintzeko? Nik uste dut asko edukazioa dela, gazteek eta hurrek ikasten dute guk ze erakusten dugun etxetik hasita eta eskolak ere lagunduta, argi dudana da sortzen dugula papel pilo bat plastiko pilo bat eta erabilpen hori ere kontzientzia gehiago piztu beharko genukeela.

Euskeraren erabilera asko gutxituko ahal da?

Azkeneko urteetan gutxitzea izan da, penaz baina nik ez nuke nahi, ez dut ikusi nahi hori agian baina hori indartu beharko genuke eta joera asko aldatu beharko genuke euskal zaletasun hori lortzeko, egin ahalko litzake, baina zaila dago.

Gaur egungo gazteek egingo ahal dute esfortzu bat herria aurrera eramateko?

Lehen esan dudan bezala gazteek egin beharko lukete baino referente gu izan beharko ginateke eta horrekin guk erakutsi herriaren alde gauzak egiten eta horrela denok lortuko genuke gizarte indibidual bat ez izan eta taldeka lanak eta herriaren aldeko bultzadak emateko.

Uste duzu Zumaia etorkizun ona duela?

Bai, nik uste dut azkenengo urtetan eduki duela bultzakada bat Zumaia herriak nahiz eta alde txarrak ere egon batez ere etxebizitzaren alkilerren egoera horiekin bizitza maila igo eginda, azkenan gorakada hori eduki duenez ba ondorioak ditu baina bizitza maila ona dauka Zumaia.